



Euskadi Jasangarritasunaren Europako Hiriburua bilakatuko da Hiri eta Herri Jasangarrien 8. Konferentzia Europarra egiten den bitartean

- 2016ko apirilaren 27tik 29ra Euskadin egingo den Hiri eta Herri Jasangarrien 8. Konferentzia Europarra, toki jasangarritasunaren alorreko Europako urteko ekitaldi nagusia izango da.
- Toki eta lurralde gobernuen, Europako eta nazioarteko erakundeen, alde anitzeko erakundeen eta zientzia erkidegoko, sektore pribatuko eta gizarte zibileko 800 ordezkari inguruk hartuko dute parte Hiri eta Herri Jasangarrien 8. Konferentzian.
- Euskal Adierazpena apirilaren 27an aurkeztuko da eta Konferentziak onetsiko du. Dokumentuak bide berriak markatzen ditu, Europako hiriak eta herriak udalerrri ekoizle, jasangarri eta erresiliente bilaka daitezen, Europa bizigarriagoan eta inklusiboagoan.
- Konferentzia Twitterren jarraitu ahal izango da, #Basque2016 eta #BasqueDeclaration hashtagen bitartez.

2016ko apirilaren 27tik 29ra Hiri eta Herri Jasangarrien 8. Konferentzia Europarra – “Ekintza Eraldatzailea: Europaren potentziala” izeneko, tokiko gobernuek jardunbide jasanezinak aldatzeko eta Europaren etorkizunari forma emateko premiaz jarduteko duten beharrean zentratzen da. Garapen Jasangarriko Helburuei buruzko NBEren Goi Bileraren eta Parisen egin zen Klimaren Aldaketarako Aldeen Konferentziaren (COP21) ondoren, konferentzia hau hiri jasangarritasunari buruz eztabaidatzeko 2016ko Europako erreferentziatzeko ekitaldia da.

Bilbao / Freiburg, April 2016.- Hiru egun iraungo dituen konferentzia, tokiko liderrek hiri garapenarekin erlazionatutako euren ideiak, esperientziak eta itxaropenak adierazteko eta tokiko gobernuen, sektore pribatuaren, gizarte zibilaren eta enpresen artean neurri integralak martxan jartzeko lankidetzak bete behar duen funtsezko lekua aztertzeako plataforma izango da.

Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak eta Markku Markkula EBko Lurraldeen Batzordeko Presidenteak, beste batzuen artean, ongi etorria emango diete Hiri eta Herri Jasangarrien 8. Konferentzia Europarrean parte hartuko duten kideei, inaugurazio ekitaldian. Hurrengo saioetan, arauzko eremuek, NBEren Garapen Jasangarriko Helburuek, Parisen lortutako klimari buruzko akordioak eta EBren Hiri Agendak hirietan eta hiriguneetan duten eragina aztertuko da.



**8TH EUROPEAN CONFERENCE ON
SUSTAINABLE CITIES & TOWNS**

BASQUE COUNTRY | BILBAO | 27 - 29 APRIL 2016

basquecountry2016.eu
#Basque2016

Euskal Adierazpena

Euskal Adierazpena apirilaren 27an, eguerdiko 12:30etik 13:00etara bitartean, aurkeztuko da eta Konferentziak onetsiko du. Euskal Adierazpenak, Europa bizigarriagoa eta inklusiboagoa lortzeko Europako hiriek eta herriek, udalerrri ekoizle, jasangarri eta erresiliente bilakatzeko egin behar dituzten ibilbide berriak markatuko ditu.

Aalborgeko Gutunaren (1994) eta Aalborgeko Konpromisoen (2004) lorpenen ondoren, Euskal Adierazpena, hiriek aurrera egiteko eta garapen jasangarriagoa lortzeko moduan zentratuko da. Dokumentuak, gizartearen eraldaketa teknologikoaren, sozio-ekonomikoaren eta sozio-kulturalaren beharra aitortzen du, bertako herritarren bizitza kalitatea bermatzeko helburuz eta, aldi berean, ekosistemen, tokikoen eta globalen, mugak eta baliabide naturalak errespetatuz.

Euskal Adierazpena izango da Hiri eta Herri Jasangarrien 8. Konferentzia Europarraren emaitza garrantzitsuenetakoa. Europa osoko toki eta lurralde gobernuetako ordezkariak txalotuko dute #BasqueDeclaration hori.

Mayors' Session – Alkateen bilera

Europa osoko 50 alkate inguru Bilboko Iberdrola Dorrean egingo den saio pribatu batean elkartuko dira, apirilaren 27an, arratsaldean. Alkateek, Europaren egungo egoerari buruzko euren ikuspuntuak eta jasangarritasunarekin eta herritarren konpromisoarekin erlazionatutako erronkak gainditzeko dituzten ideiak konpartituko dituzte, beste alderdi batzuen artean.

Gai interesgarri asko

Konferentziako lehen eguneko arratsaldeko jardunaldian, gaikako 11 saiok gai interesgarri eremu zabala beteko dute, osasunetik ekonomia zirkularra, eraginkortasunetik eta mugikortasunetik igaroz. Amaitzean, finantzaketan, berrikuntzan, estandarretan eta “smart citietan” zentratutako azpi-osoko lau bilera egingo dira.

Eusko Jaurlaritzak harrera egingo die konferentziako partaide guztiei Guggenheim museoan. Harrerak, jasangarritasunaren bilaketan ICLEIk egindako 20 urteko lana ospatzeko ere balioko du.

Hiri ekoizleak, berrikuntzaren merkatua eta tailer mugikorak

Bigarren eguna “Hiri ekoizlea – Ekintza eraldatzaileetarako kontzeptu” osoko bilkurarekin hasiko da. Bertan, Jeb Brugmanek, ICLEIko - Jasangarritasunaren aldeko Tokiko Gobernuen



8TH EUROPEAN CONFERENCE ON SUSTAINABLE CITIES & TOWNS

BASQUE COUNTRY | BILBAO | 27 - 29 APRIL 2016

basquecountry2016.eu
#Basque2016

Elkarteko, sortzaileak, hiriek eta hiri lurraldeek euren baliabideetan oinarrituz gizarte eta ekonomia alorreko balioa sortzeko eta, horrela, tokiko ekonomiak arazoaren aurrean indartsuagoak izan daitezela lortzeko duten gaitasunari buruz dituen ideiak konpartituko ditu.

Berrikuntzaren merkatuan, toki, lurralde eta nazio mailako gobernuek, GKEk, zientzia eta ikerketa erakundeek eta beste eragile batzuek, konferentziaren goiburuararekin bat datozen euren ekimenak, prozesu politikoak eta ikerketa proiektuak aurkeztuko dituzte: “Ekintza eraldatzailea, Europaren potentziala”. 20 aurkezpen azkar, eztabaidarako 25 mahai eta 35 “poster” aurkezpen egongo dira.

Arratsaldean, partaideek, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako lurraldeetan antolatutako bederatzitailer mugikorretatik bat hautatzeko aukera izango dute. Tailer horietan Euskadin gauzatutako jardunbide onak erakutsiko dira. Hiru lurraldeetako bakoitzean hiru esperientzia aukeratu dira, ingurumen, gizarte eta ekonomia irizpideetan oinarrituta. Partaideek ikusi ahal izango dituzte, adibidez, Gasteizko inguru naturalak eta dagoeneko birsortutako eraikitako gunek eta Mutrikun, olatuen bitartez energia sortzeko planta, Europan aitzindaria den itsas teknologia.

Agenda Orokorra eta EBko Hiri Agenda

Konferentziaren hirugarren eta azken eguna, Hiri Agenda Orokorren eta EBko Hiri Agendaren eta Europako hirien errealitate politikoaren arteko elkarrekintza gauzatzeko moduari buruzko eztabaidarekin hasiko da. Tirana (Albania), Almada (Portugal), eta Dunkerque (Frantzia) bezalako hirietako ordezkariak euren hiriak zelan eraldatu dituzten edo zelan eraldatu aurreikusten duten azalduko dute.

“Toki mailatik izpiritu europarra berreskuratuz” izeneko azkenengo osoko bilkuran, Aalborgeko Gutuna (1994) eta Aalborgeko Konpromisoa (2004) sinatu ziren tokiko, Aalborgeko (Danimarka) Thomas Kastrup-Larsen alkateak, errelebu emango dio Euskadiri. Ana Oregi Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailburuak, Euskadiko eta Europako hiriek egungo erronken aurreko konponbide jasangarriak aurkitzeko dituzten aukerei buruzko gogoetak konpartituko ditu entzuleekin.

Gazteria eta Konferentzia

Gazteek Konferentzian izango duten partaidetza “Young Ambassadors” eta Gazteen Foroa ekimenean bitartez sustatu da. “Young Ambassador” horiek, Konferentzian parte hartzeko eta, konferentziarekin edo Euskadin egingo duten egonaldiarekin erlazionatuta partaideen laguntzaile gisa aritzeko prestakuntza jaso duten 30 gazte izango dira. Programa, gazte horien



**8TH EUROPEAN CONFERENCE ON
SUSTAINABLE CITIES & TOWNS**

BASQUE COUNTRY | BILBAO | 27 - 29 APRIL 2016

basquecountry2016.eu
#Basque2016

enplegagarritasuna hobetzera dago zuzenduta. Ikastetxeetarako Agenda21eko parte den Gazteen Foroa, euren ideiekin eta ikuspuntuekin konferentziaren garapenari lagunduko dioten 20 ikaslek osatuko dute.

Antolatzaileak

Hiri eta Herri Jasangarrien 8. Konferentzia Europarra, ICLEI – Jasangarritasunaren aldeko Tokiko Gobernuen Elkarteak, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak antolatu dute, Udalsarea 21en – Jasangarritasunaren aldeko Udalerrien Euskal Sarearen, partaidetzarekin eta Arabako Foru Aldundiaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Donostiako Udalaren eta Gasteizko Udalaren laguntza du.

Euskadik hiri jasangarritasunarekin duen konpromisoa

Euskadik, Europako hiri handiek eraldatzeko duten ahalmena islatzen du. Industrian zentratuta egotetik zerbitzuetan oinarritutako ekonomia modernoaren aldeko apustua egitera igaro da. Duela denbora gutxi onartu den Ingurumen Programa 2020k, ingurumena hobetzeko eta gaur egun Europan eta nazioartean enplegua sortzeko, bizitza estandarrak hobetzeko eta “low-carbon” ekonomia bultzatzeko dauden estrategiekin bat egiteko konpromiso trinkoa erakusten du.

Hiri eta Herri Jasangarrien Konferentzia Europarra

Euskadin egingo den Hiri eta Herri Jasangarrien 8. Konferentzia Europarra, Aalborgen (Danimarka, 1994 eta 2004), Lisboan (Portugal, 1996), Hannoverren (Alemania, 2000), Sevillan (Espainia, 2007), Dunkerquen (Frantzia, 2010), eta Genevan (Suitza, 2013) egindako aurreko konferentzien ondarean oinarrituta sortzen da.

Konferentziaren egoitza

Hiri eta Herri Jasangarrien 8. Konferentzia Europarra [Euskalduna Erakusketa eta Musika Jauregian](#), izango da, XXI. mendeko Bilboren erreferenteetako batean. Federico Soriano eta Dolores Palacios arkitektoek diseinatu zuten, etengabe eraikitzen ari den itsasontzi gisa, Euskalduna ontziolak izan zirenen dikean. Konbentzio guneak Enric Miralles saria lortu zuen 2001ean Espainiako Arkitekturaren 6. biurtekoan.


[Nola heldu Bilboko aireportutik hiriaren erdialdera](#)



8TH EUROPEAN CONFERENCE ON SUSTAINABLE CITIES & TOWNS

BASQUE COUNTRY | BILBAO | 27 - 29 APRIL 2016

basquecountry2016.eu
#Basque2016



Prentsarako paseak eta logistika

Prentsarako paseak eta identifikagailuak Konferentzian izena emateko erakusmahaiaren egongo dira. Izena emateko erakusmahaiaren asteazkenean, apirilaren 27an, goizeko 08:00etatik 09:30era eta ostegunean, apirilaren 28an, eta ostiralean, 29an, goizeko 08:45etik 09:30era egongo da zabalik.

Identifikazio txartela edo pasaporte eskatuko dira bat-bateko itzulpenarako aurikularren erabilera eskatu ahal izateko (hizkuntzak: ingelesa, gaztelania eta euskara).

Medioek prentsa areto baterako sarbidea izango dute konferentziaren egoitzan. Informazio gehiago eskainiko da izena emateko erakusmahaiaren.

Egoitzak WiFi izango du. Pasahitza Konferentzian jakinaraziko da.